

Zaldibiako txistulariak

1950. hamarkada inguruan D. Manuel Etxeberriak antzerkia eta musika erakusten zien gazteei, belaunaldiak joan eta etorri, aspertu gabe, eta txistulari-taldeak sortu zituen.

Ezaguna dugun **lehen belaunaldia** honako hauek osatu zuten:

- o Inazio Mendizabal (Muertzakoa) (1937/03/14).
- o Juan Irastortza Irastortza (1937/02/18).
- o Inazio Mendizabal Armendariz (Zubiondokoa) (1936/05/02).
- o Aureliano Jauregi (1937/10/03).
- o Bruno Garmendia (1937/10/06).

(Ikus [argazkia](#))

1964 inguruan sortu zuen **bigarren belaunaldia**, eta honako hauek osatzen zuten:

- o Joxe Ramon Arizkorreta (1945/03/19).
- o Inaxio Mendizabal (1947/05/02).
- o Fermin Galarraga (1945/08/24) (atabala jotzen Beasaingo Txanbok irakatsi zion).
- o Patxi Iruin (1947/09/04).
- o Jose Mari Iruin (1949/3/15).

- Don Manuelek solfeoa eta txistua irakatsi zizkien.
- Zaldibian jotzen zuten egun jakin batzuetan, Udalak ordainduta; egun horietan, alkatearen etxe aurrean amaitzen zuten, Alkate Soinua jota. Alegiako dantzariekin ere ibiltzen ziren.
- Beste behin, hasi berritan izango zen, txistua jotzen saioaren bat eginda, norbaitek salaketa jarri omen zuen “Eusko Gudariak” edo horrelako zerbait jo zutela eta, baita Gobernadore Zibilak deitu ere bertaratzeko esanez, D. Manuelek joan omen ziren eta, Gobernadorearekin hizketan jardun ondoren, abesti hori jotzeko eskatu omen ziren, baita jo ere; Gobernadoreak entzun ondoren, bakoitzari poltsatxo bana goxoki eman eta etxera bidali omen zituen.

Tarteko belaunaldia, Horrela esan baitaiteke, ez dakit D. Manuelek prestatu zuen ala ez, baina Txanborekin ere ikasi zutela argi dago, Zaldibian edo Beasainen.

Ez dakit zenbat ziren ere, baina horietako bat Nekane Arruabarrena zela bai, eta gainera, Zaldibian irakasten aritu zen.

Hurrengo belaunaldiak:

Xalbador Garmandiak eta Xalbador Etxeberriak sortu zuten ondorengo taldea, larunbata arratsaldetan gazteak biltzen zituzten, X. Garmendiak solfeoa irakasten zien eta X. Etxeberriak txistua.

- o Malores Etxeberria
- o Tere Irastortza
- o M^a Jose Garmendia
- o Josune Etxeberria
- o Garbiñe Mendizabal
- o Jose Ignazio Irastortza. Honek atabala jotzen zuen.

- Malores Etxeberria eta Tere Irastortza Beasaingo Txanborekin ere aritu ziren ikasten.
- Malores Etxeberriak Zaldibian irakatsi zuen, gero, solfeoa eta txistua.

- Garbiñe Mendizabalek eta Tere Irastortzak Zaldibian, Ataunen eta Araman irakasten zuten solfeoa eta txistua.
- Urte batzuk beranduago, Izaro Garmendia eta Lander Belokik hartu zuten irakasteko lana, baina laster egin zen Ordiziako Musika Eskolarekin hitzarmena eta hango irakasleak etortzen dira Zaldibiara txistua irakastera.
- Garai hartan, “Txistulari Egunak” antolatzen ziren, urtean behin, Alegian, Zaldibian, Altsasun, Zegaman, Seguran... Hor kalejirak eta zenbait saio egiten zituzten herri horietako guztietako txistulariek batera, goizez eta arratsalde, eta herriko familietara joaten ziren bazkaltzera taldetxotan.

Gaurko Txistulariak

Ordiziako Musika Eskolako Ana Insaustik irakasten du gaur egun txistua Zaldibian, eta honako talde hau aritzen da Zaldibiako ekitaldietan eta dantza-taldearekin txistua jotzen:

- | | |
|----------------------|---------------------|
| o Ainhoa Mendizabal | o Estitxu Mujika |
| o Leire Arruabarrena | o Aintzane Aranburu |
| o Maider Etxabe | o Maite Huerta |
| o Goizane Esnaola | |

Atabalariak

Urte horietan txistulariekin atabala jotzen ibili direnak honako hauek dira:

- | | |
|-----------------------|---------------------------|
| o Fermin Galarraga | o Jose Ignazio Etxeberria |
| o Eleuterio Jauregi | o Jose Ignazio Irastortza |
| o Martin Arruabarrena | |

Txistua irakasten aritu zirenak

Manuel Etxeberria Sukia

Ikus organisten atalean.

Xalbador Etxeberria Tolosa

- Zaldibian jaio zen, 1934/12/07an.
- Sakramentinoetan ikasi zuen, 7 urtez Tolosan eta 5 urtez Villaban-Atarrabian, 4. Teologia egin zuenean utzi zuen apaizgintza.
- Seminarioan ikasi zuen solfeoa eta pianoa ere bai zerbait, baina txistua ikasi zuen gogoz. Sakramentinoetako taldea osatu zuten.
- Zaldibian, Xalbador Garmendiak eta biak, igandero, solfeoa, Eguberrietarako kantuak eta txistua erakusten zieten nahi zuten guztiei, haur- talde handia biltzen zen.
- Haien lema “Norberak dakiena besteei erakustea” izan zen, eta hori hurrei txertatzen saiatu ziren.
- Errifak-eta egiten zituzten dirua ateratzeko, ezin zuenari txistua erosteko..., eta diru hori hurrek administratzen zuten.
- Zaldibian jotzeaz gainera, leku askotara ere joan ziren txistulariekin: Tolosara, Zumarragara, Altsasuko txapelketa batera...
- Tolosako Parrokiako koruan kantatzen du, astero izaten dituzte saioak (eta Pepe Arzelus, organista, eta biak joaten dira).

Xalbador Garmendia Etxeberria

Ikus organisten atalean.

Nekane Arruabarrena Eskisabel

- Zaldibian jaio zen, 1950/02/12an.
- Beasaingo Txanborekin ikasi zuen txistua jotzen.
- Zaldibian, Abaltzisketan eta inguruko herrietan aritzen zen txistua jotzen.
- Zaldibian aritu zen txistua irakasten.

Malores Etxeberria

- Zaldibian jaio zen, 1957/06/15ean.
- Manuel Etxeberriareni loba da.
- Euskarako teknikaria da Hernaniko Udalean.
- Xalbador Garmendiarekin, Xalbador Etxeberriarekin eta Beasaingo Txanborekin ikas izuen solfeoa eta txistua jotzen.
- Ondorengo belaunaldiei zekiena erakusten aritu zen.

Tere Irastortza Garmendia

- Zaldibian jaio zen, 1961/02/23an.
- Xalbador Garmendiarekin, Xalbador Etxeberriarekin hasi zen solfeoa eta txistua jotzen ikasten eta Beasaingo Txanborekin jarraitu zuen txistua jotzen ikasten.
- Ondorengo belaunaldiei zekitena irakasten aritu zen.
- Gitarra jotzen ere ikasi zuen Zaldibian, Tolosatik joaten zen irakasle batekin.
- Irakaslea eta idazlea da. Ikus biografia eta idatzitako liburuak lotura hauetan:
http://www.idazleak.org/idazleak/idazlea.php?idazle_id=123
<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00120.htm>

Garbiñe Mendizabal Mendizabal

- Tolosan jaio zen, 1961/08/28an.
- Euskal Filologian lizentziatua eta HIZNET Hizkuntza Plangintzan Gradu-ondokoa.
- Euskara teknikaria Ordiziako Udalean.
- Zaldibian ikasi nuen solfeoa eta txistua jotzen.
- Txistua irakasten aritu zen hainbat urtetan Ataunen.

Izaro Garmendia

Ikus konpositoreen atalean.

Lander Beloki Mendizabal

- Zaldibian jaio zen, 1971/03/05ean.
- Ekonomian doktorea da.
- Xalbadorrekin eta Tere Irastortzarekin ikasi zuen solfeoa eta txistua jotzen.
- Harmonia, abesbatzako kantua eta Klarinetea jotzen ere ikasi zuen.
- Txistularia eta Goiztiri txarangako kidea izan zen.